

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Donostia, 2016ko abenduaren 1a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

MOZIO ARRUNTA, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO PLAZA KOPURA HANDITZEKO

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Hizkuntza Eskola Ofizialeko plaza kopurua handitzeko, OSOKO BILKURAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Urrian adierazi genuen bezala, Udala gehiago inplikatu behar litzateke euskara ikasteko eskaintzan eta, zehazki, hirian langabetuei zuzenduta dauden euskara ikastaroen eskaintzan. Udala gehiago inplikatzeko eskatzen dugun modu berean, beharrezkoa da baita ere gainerako euskal erakundeak gehiago inplikatzeari. Hori dela eta, funtsezkoa deritzogu Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen garatzeari, euskara ikastearen eta erabiltzearen aldeko apustuaren isla.

Euskara ikasteko aukera berdintasuna bermatzea da euskararen normalizaziorako lehen urratsa. Hainbat erakundek ekimenak garatzen dituzte hirian euskararen erabilera sustatzeko eta, horrela, hizkuntza normalizatzeko. Baina beharrezkoa da oinarritik abiatzea erabilera posible izan dadin. Hau da, baldintzak ezarri behar dira euskara ikastea eskura egoteko, bai denbora aldetik, bai diru aldetik. Euskara ikasten ez jarraitzeko arrazoen artean, hiriko euskaltegietan matrikula ordaintzeko zailtasun ekonomikoak egon daitezke, nahiz eta diru laguntzak jasotzeko aukera egon behin ikastaroa amaitu ondoren.

Eusko Jaurlaritzaren mende dauden Hizkuntza Eskola Ofizialak tresna egokia izan daitezke herritarrek aukera berdintasunean ikas dezaten euskara; izan ere, urteko matrikula ikasturte

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

honetan 72,36 euro izan da. Horregatik, euskara ikasteko eskaintzen den plaza kopurua handitzea da hartu beharreko neurrietako bat, eskaintza eskariari egokituta.

Hori dela eta, MOZIO ARRUNT hau aurkezten dugu:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio handitu dezala euskara ikasteko plaza kopurua Donostiako Hizkuntza Eskola Ofizialean, eta, jarduera garatzeko toki gehiago behar izatekotan, udal espazioen erabilera lagatzeko konpromisoa hartzen du.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.